



# MAHAI OROKORRA EAE 2008

## Diru hutsa, konpromiso falta eta benda kendu nahi ez

Azaroaren 15ean berriro bildu da hiru herrialdeetako Mahai Orokorra, LABentzat ezin etsigarriagoa. Aurrekoan eskatu genuen soldataz gaineko gaiak negoziatzeko egutegirik ez dute aipatu ere egin, oso adierazgarria dena:

HAUXE DIOTE	LABen IRAKURKETA
<b>ORDAINSARIAK</b>	
Azkenekotik aldatu duten jarrera bakarra da gaur aurreikusten den urteko KPIa betetzeko aukera (Itzarri eta maletinarekin suposatzen da), eta ordaintzeko era ezberdinak aztertze prest. Abanikoa ez dela handia eta ez dela zertan murriztu beharrik.	Eros-ahalmena berreskuratu behar dugu, geuk nahi dugun bezala erabiltzeko, ez euren txiringoetan, eta langile guztiontzat. Soldata abanikoak handiak izateaz gain, hitzartutakoa apurtzeaz gain, handitu egiten dituzte (goitik, jakina)
<b>PREKARIETATEA</b>	
Administrazio Publikoetan ez dagoela. Behin behinekotasun tasa %10era jaisteko asmoa, Lan Eskaintza Publikoa negoziatzeko prest.	Euren bulegoetatik ziur ez dutela prekarietaterik ikusten, kontratuak sinatzen badituzte ere. Behin behinekotasun tasa ere pribatizazioekin jaisten dute. Proposamen garbirik ez.
<b>PLANTILAK BERRITZEA</b>	
Administrazioetan lanaldia murrizteko justifikaziorik ez dagoela gainera.	Pribatizatuetoako zerbitzuen bidez egiten dute. Hortxe sartuko dituzte gazteak era prekarioan.
<b>PRIBATIZAZIOAK</b>	
Ez dela ezer iraunkorra, eta azken aldian ez dela ezer externalizatu; Zer externalizatu daitekeen eta zein baldintzetan negoziatuko lukete, baina "autoantolaketaren" izenean egiteko ahalmena gordetzen dute.	Tranpak eta gezurrak. Mamiari ez diote heldu nahi, eta balio praktikorik gabeko "jarraipen batzordeak" eskaintzen dute. Askok jota itxurakeria beraz.
<b>HIZKUNTZ NORMALKUNTZA</b>	
Ez dakite / Ez dute erantzuten	Marketinerako balio ez zaienean...
<b>LAN OSASUNA</b>	
Berdin	Ezaguna da ere Administrazioak gai honekiko duen konpromiso maila.

LABentzat garrantzitsuak dira aipatutako gaiei heltzea, era orokorrean gainera. Ez da inolako kezkarik antzematen, asko jota itxura hutsa... eta pastel usaina! Ezagun zaharrak gara dagoeneko.

Konpromisoak aurretik hartzen ez badira, sinaduren ondoren egiten dutena sobera ezaguna da: Etekinak jaso eta... datorren urtera arte!

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/publika>

Arabara	Bizkaian	Gipuzkoan	Nafarroan	Iparaldean
Fermin Lasuen, 13 behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org	Rekalde zumarkalea, 62 behea 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 irakaskuntzabizkaia@ labsindikatu.org	San Bladi 1, behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 456 645 irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org	Martzelo Zelaieta 75, 2-A 31014 Iruñea Telf.: 948 382 474 Faxa.: 948 221 276 irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org	7 Coursic KARRIKA 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 baiona@ labsindikatu.org